# IRAGARKIA

2022ko abuztuaren 24an Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan eta idatzirik dagoen akordioa onartu zen:

**---"3. 2022/16 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-TRANSFERENTZIA (IBILALDI TURISTIKO ETA NATURALAK DIGITALIZATZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateordeak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik kontu-hartzailetzak 2022ko abuztuaren 22an egindako txostenak adierazten duela indarrean dagoen aurrekontuko gastu-partida batean ez dagoela kreditu nahikorik, eta, beraz, kreditua transferitzeko espediente bat onartu behar dela (2022/16 zk.). Aipatzen du ondoko hau dela transferentzia behar duten gastu-partidak:
1-4320-62600. Ibilaldi turistiko eta naturalak digitalizatzea. 500,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 500,00 €.

Kontuan izanda aipatu txostenean proposatzen duela hura finantzatzea partida honetako kredititutik eginiko transferentziarekin:
1-3270-22699. Memoria historikoa. 500,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 500,00 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 216. eta 217. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 11. eta 9. Exekuzio Oinarriei jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/16 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-transferentzia).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean..”---

29/08/2022 11:09:55
Jatorrizkoa elektronikoki sinatuta/Original firmado electrónicamente.

Argitaratzen da aipatutako ondorioetarako.

Bera, 2022-08-27.
SINADURA DIGITALA.
ALKATE EGINKIZUNETAN ARI DEN ALKATEORDEA /
J. Esteban Aguirre Zubieta.